



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko irailaren 11

8. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Juncker Planari buruzko lantalde bat sor dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa premiatzen dira publikoki gaitzets dezaten gure herrialdean gertaturiko genero indarkeriagatik hilketa bakoitza. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari exijitzen zaio sarbide zuzeneko asilo diplomatikoa berrezar dezan espainiar enbaxada guztietan eta lan egin dezan asiloaren inguruko politika komun bat ezartze aldera. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkerreko-Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ordezkari politikoek gure erkidegoko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu CaminoDelSol adierazpena. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren arabera Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatze aldera Alderdi Popularrak egindako proposamena. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu erakunde publikoek urgentziaz esku hartu behar dutela errefuxiatuak Europara heltzeak eragindako krisi humanitariotik heldu diren ondorio larriei erantzuteko. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartzuna adierazten baitie pobrezia eta gerren ondorioz Europan babestu behar duten pertsonen. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ordezkari politikoek Foru Komunitateko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak ETaren biktimen gainean eginiko adierazpenei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta. Carlos García Adanero jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa, uholdeek eragindako kalteak txikiagotzeko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, itzarote-zerrendei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldean sartzea (18. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Juncker Planari buruzko lantalde bat sor dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Juncker Planari buruzko lantalde bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2014ko ekainean, Europako Parlamentuak planteatu zuen Inbertsio Estrategikoetarako Europar Funtsa –ingelesez, EFSI– eratzea, Europako Inbertsio Bankuaren 5.000 milioi euroekin eta 16.000 milioi euroko berme-funts batekin. Proiektua Juncker Plana izenez ezagutzen da. Azkenean, mobilizatutako kapitala 315.000 milioi eurokoa izanen dela uste da. Europako Parlamentuak bere oniritzia eman dio plan horri 2015eko ekainaren 24an egindako bilkuran, funtsaren funtzionamendurako erregelamendua onetsita (464 boto alde, 131 boto aurka, eta 19 abstentzio).

Eskuratu ahal izan ditugun interbentzioen eta dokumentazioaren arabera, Juncker Planak eko-

nomiaren funtsezko sektoreetan jarriko luke azpimarra; bereziki, garraioan, energian, ekonomia digitalean eta enpresa txiki eta ertainetan.

Onespen goiztiarra gorabehera, eta lankidetzako publiko-pribatuaren esparruan gaudenez, Batzordea eta Europako Inbertsio Bankua onesten hasiak dira proiektu batzuk, eta zortzi proposamendi oniritzia eman diote; horietako hirutan Espainiako enpresa batzuek parte hartzen dute; hain zuzen ere, Abengoa (aplikazio kimikoak), Grifols (I+ G biomedikoa) eta Redexis, zeina gas-azpiegitura Espainian hedatzeaz arduratuko baita.

Nafarroa ezin da gelditu kapital-mobilizazio benetan garrantzitsu horretatik at, eta ahalegin handia egin behar du ahal den mobilizatu gehiena erakartzen gure foru erkidegoko enpresetarantz, edo, halakorik ezean, enpresak, proiektuak, inbertsioak eta ideiak erakartzen.

Ekonomia-hazkundeko proiektu orok darama berarekin enplegu-sorkuntza, eta une honetan biek ala biek dute lehentasuna Nafarroaren etorkizunari begira; hartara, berehala antolatu beharko da hel gaitetzkeen espazio guztien plangintzaren aurkezpen-planteamendua, kontuan hartuta Nafarroa ongi bai ongi dagoela posizionaturik arlo horietan; alegia, garraioaren, energiaren, ekonomia digitalaren eta enpresa txiki eta ertainen arloetan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala sor dezan Juncker Plana jorratzeko lan mahai bat, zeinean parte hartuko baitute parlamentu-taldeek eta aurreikusitako arlo bakoitzeko gizarte- nahiz enpresa-liderrek. Mahai horretatik lehenbailehen ateratu beharko lirateke ezinbestekoak diren zenbait proiektu, hala nola ekonomia digitalaren arlokoak nahiz Nafarroako enpresak eta enpresa txiki eta ertainak modernizatzeko eta gaurkutzeko proiektuak. Hala ere, eta kontuan hartuta lankidetzako publiko-pribatuaren formatuak zalutasun eta sormen berezia

eskatzen dituela, ideiak proposatu nahi dituen ororen lankidetzara eskatzera premiatzen dugu.

Iruñean, 2015eko abuztuaren 7an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa premiatzen dira publikoki gaitzets dezaten gure herrialdean gertaturiko genero indarkeriatiko hilketa bakoitza.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa premiatzen baitira publikoki gaitzets dezaten gure herrialdean gertaturiko genero indarkeriatiko hilketa bakoitza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Generoko indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzko Lege Organikoak, zeina José Luis Rodríguez Zapateroren gobernu sozialistak onetsi baitzuen 2004an, hauxe dio genero indarkeriari buruz: "Genero-indarkeria ez da esparru pribatuari dagokion arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren agerikorik ikaragarriena da. Emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da, eraso-tzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela

askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak."

Genero-indarkeriak muturreko ziurgabetasun-agertoki batean jartzen ditu emakumeak. Ez da gorabehera isolatu bat. Genero-indarkeriaren arrazoi nagusia da egiturazko desberdintasuna dagoela gizonezkoek emakumezkoekiko daukaten menderatze-harremanean.

Gizarte desorekatu baten esparruan ematen da emakumeen aurkako indarkeria. Gizarte desorekatu horretako genero-harremanen sistemak betikotu egiten du gizonezkoak emakumezkoaren gainean daukan nagusitasuna, eta atributu, rol eta gune ezberdinak esleitzen ditu sexuaren arabera. Emakumeen aurkako indarkeriaren arriskurik handiena heldu da, hain zuzen ere, emakume izatetik.

Genero-indarkeriaren aurkako borrokan gogotan izan behar dugu indarkeria hori desagerrarazi nahi baldin badugu nahitaez amaiarazi behar dela indarkeria horri sostengua ematen dion dion zutabe nagusia: desberdintasuna.

Arriskuan dauden emakumeen kopurua handitu bada ere, Rajoyren Gobernuak aurrekontu-murrizketaren eta politika kontserbadore ugari garatzearen aldeko hautua egin du, emakume espainiarrek egun bizi duten desberdintasun-egoera areagotu besterik egiten ez dutenak. Emakumezkoek indarkeria pairatzeko arriskua areagotzen duten faktoreak dira hezkuntza-politika egokirik eza, gizarte-babesgabetasunaren areagotzea, emakumeen langabezia-tasa handiagoa izatea, pobreziaren feminizazioa eta prebentziorako, eta biktimen babeserako eta babes integralerako baliabide publikoak eskasak izatea.

Emakumeen aurkako indarkeria defizit demokratiko bat da, gizarte-arazo bat, gizarte osoaren

inplikazioa exijitzen duena konponbide bat izanen badu. Halere, lehendabizi botere publikoei dagokie gizarte libre, berdintasunezko eta demokratiko bat bermatzea.

Gure jardun politikoaren erdigunean jarri behar dugu neurri eta ekintza prebentiboetan sakontzea eta garatzea, indarkeria sorburutik beretik desageraraztera bideratuak, hori baita modu eraginkor bakarra gure gizartean genero-indarkeriarekin amaitzeko. Neurri horiek administrazio publiko guztiekin koordinatu behar dira –bereziki, udalekin–, eta aurrekontu-zuzkidura nahiko eta lehentsia izan behar dute. Hedabide publikoen bidezko sentsibilizazio-neurriak eta Nafarroako hezkuntza-sistema funtsezko zutabe dira, hartara, fronte komun bat egite aldera emakumeen aurkako indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko gizarte-eredu libre eta beri baterantz.

Zenbakiak erakusten digutenez, bikoteak edo bikote-ohiak erildako emakumeen kopurua gora doa. 2014an, 51 emakume hil ziren indarkeria matxistaren erruz, eta 2015a hasi zenetik hona –abuztuak 6– 23 izan dira ofizialki. Urtea bereziki latza izaten ari da eraildako adingabeen kopuruari dagokionez.

Gure ustez, funtsezkoa da eraikitzea emakumeen eskubide osoa edukiko duten eta askatasunez, duintasunez eta berdintasunez garatu ahal izanen diren gizarte bat. Autonomia ekonomikoa ahalbidetuko zaien gizarte bat, non prebentzioan eta hezkidetzan inbertituko baita, non genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ikusiko baitute erakundeek erantzun bat emanen dietela beren bizitza segurtasunez eta askatasunez berreskuratzeko.

Erakundeen erantzukizuna da lehenik eta behin erantzun irmo bat ematea genero-indarkeriako kasu bakoitzari, babesa emanaz gizarte zibilaren ekitaldi bakoitzari, helburu baldin badu emakume askoren dramarekin amaitzea, eta, batez ere, berehalako erantzun bat ematea eskueran dituzten tresna guztiekin neurri zehatzak hartuz.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

– Foru erakundeek, Nafarroako Gobernuak, Parlamentuak eta Udal eta Kontzejuen Federazioak publikoki gaitzetsiko dute gure herrian genero-indarkeriagatik gertatutako hilketa bakoitza.

– Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko guztiei eskatzen die –baita udalei ere– bere egin dezaten edozein biktimarentzat eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio guztia berehala emateko konpromisoa, eta erakundeetan leku ageriko batean ikusgai para dezaten erasoren bat pairatuz gero deitu beharreko telefono-zenbakia.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urgentziaz gara dezan martxoan onetsitako Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Foru Legeko plan estrategikoa eta 2016rako aurrekontuetan aurrekontuz horni dezan.

– Azken hilabeteotan biktima kopurua igo dela ikusita –batez ere, gurasoek edo amaren bikotekideak eraildako adingabeena–, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du arloko adituen eta elkarte adituen mahai bat eratu dezan, egin litezkeen lege-aldaketak edo har litezkeen neurriak aztertuko dituen, pertsonarik ahulena babesteko.

Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du indarkeria matxisten aurka heldu den azaroaren zazpian Madrilen egiten den estatu-manifestazioa, eta gonbit egiten die herritar guztiei manifestazio horrekin bat egin dezaten.

Iruñean, 2015eko abuztuaren 11n

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari exijitzen zaio sarbide zuzeneko asilo diplomatikoa berrezar dezan espainiar enbaxada guztietan eta lan egin dezan asiloaren inguruko politika komun bat ezartze aldera.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari exijitzen baitzaio sarbide zuzeneko asilo diplomatikoa berrezar dezan espainiar enbaxada guztietan eta lan egin dezan asiloaren inguruko politika komun bat ezartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunek beren kezka eta atsekabe sakona adierazten dute II. Mundu Gerraz geroztik izan den krisi humanitario handiena dela-eta, zeina soilik pareka baitaiteke, lekualdatutako pertsonen eta asilo-eskabideei dagokienez, Jugoslaviako 1992ko gerrek eragindako egoerarekin. Halaber, salatu egiten dugu Europar Batasuna eta Alderdi Popularraren Gobernuak auzi honetan berriz ere egiten ari diren kudeaketa txarra eta erakusten ari diren elkertasun eza.

Europar Batasunak 2.000 milioi euro gastatu ditu 2007tik 2013ra bitarte mugak bilndatzen; asilo-politikan, aldiz, soilik 700. Munduko errefuxiatuen ehuneko 10 baino gutxiago iristen dira EBra, gehienak ihes egiten ari diren herrialdeekin

muga egiten dutenetan gelditzen baitira. Gatazkak lekualdatutako 8 milioi pertsonetatik, 6 milioi herrialde mugakideetara lekualdatu dira –batez ere, Libanora, Turkiara eta Jordaniara–; 2 milioi beste herrialde batzuetara joan dira, eta soilik 250.000 pertsonak lortu dute Europara heltzea. Alegia, siriarren % 6k bakarrik bilatzen dute babesa Europan.

Espainiak, berriz, EBko asilo-eskabideen % 1 soilik jasotzen du. CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordearen 2015eko txostenak jasotzen du 5.947 pertsonak soilik eskatu zutela 2014an nazioarteko babesa Espainian. Horietatik, soilik 1.585 onartu ziren tramitera. Azkenik, soilik 384 pertsonak lortu zuten errefuxiatu-estatutua, eta 1.199 pertsonak babes subsidiarioa lortu zuten. Iaz, Alderdi Popularraren Gobernuak soilik 130 siriar birkokatze konpromisoa hartu zuen, jada 8 milioitik gora pertsona lekualdatzea eragin duen gatazka batean; soilik urtarrietik abuztura, 264.500 pertsonak ihes egin behar izan dute. Gobernuak krisi honetan eta asilo-eskabidearekin daukan konpromisoa hutsaren hurrengo da, datuek erakusten duten bezala.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok Legebiltzarra premiatzen dugu Gobernuari exiji diezaion urgentziaz abiaraz ditzan ondoko neurri zehatzak, erabakimen osoa baitauka horiei dagokienez:

1 Errefuxiatuei EBn sartzeko bide legalak taxutzeta, pertsonen trafiko-sareak amaiarazteko eta gure mugetan ikusten ari garen giza-dramari amaiera emateko. Zehazki, sarbide zuzeneko asilo diplomatikoa berrezartzea Espainiaren enbaxada guztietan. Alegia, jatorrizko estatuetan nahiz pasaerakoetan Espainiaren enbaxadetan eta kontsuletxeetan nazioarteko babesa eskatzeko aukera ematea berriz ere. Hori baita 12/2009 Legeak, asilo-eskabidea eta babes subsidiarioa arautzen dituenak, ezartzen duena, nahiz eta oraindik ere erregelamendu bidez garatu gabe dagoen. Hartara, exijitu egiten dugu erregelamendu hori urgentziaz izapidetu dadin eta beharrezkoak diren jarraibideak eman daitezen neurri hori berehala aplikatu ahal izan dadin, erregelamendua garatu bitarte.

2. Asilo-politika komun bat hartzeko lan egitea eta, araudi hori garatzen den bitartean, Gobernutik Europar Batasunari presioa egitea berehala indargabetu dadin Dublin 3 Protokoloa; izan ere, protokolo horrek aurreikusten du errefuxiatu bat EBko estatu kide batetik asiloa eskatu zuen herrialdera itzultzea, eta eragotzi egiten du pertsona horien zirkulazio librea.

Halatan, gu Europar Batasuneko zenbait herrialderen –Hungaria edo Mazedonia, kasu–jokabidearen aurka gaude, argi eta garbi gainera, eta Europar Batasunari exijitzen diogu jarrera tincoago bat eduki dezan herrialde horien mugan gertatzen ari denaren aurrean.

Gobernua premiatzen dugu exiji dezan mugaren militarizazioa eta lekualdatutako pertsonen kriminalizazioa amaitu daitezen, giza eskubideekiko eta Batasunaren balio nagusiekiko errespetua oinarri.

Azkenik, gure babes osoa eman nahi diogu krisi humanitario honi modu solidario eta arduratsu batez aurre egite aldera Legebiltzar honetatik abian jartzen den ekimen orori, eta orobat adierazten dugu gure borondatea dela Bartzelonako Udalak egindako proposamenaren gisakoetan parte hartzea, errefuxiatuei ongi etorria egin eta horiek hartzeko babes-hirien sare bat hedatzeko. Era berean, herritarrei dei egiten diegu egoera dramatiko hau agerian uzten duten ekimenak susta ditzaten eta horietan parte har dezaten eta Nafarroaren elkartasuna adieraz diezaieten gehien sufritzen dutenei.

Iruñean, 2015eko irailaren 3an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Maiorga Ramírez Erro, Laura Pérez Ruano eta Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ordezkari politikoez gure erkidegoko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Bestelako ideologiekiko errespetua eta tolerantzia da demokraziaren balio nagusietako bat; hortaz, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten

ditu ordezkari politikoez gure erkidegoko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak, eta lan eginen du ez dadin halakorik berriro ere gerta”

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu CaminoDelSol adierazpena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere egiten du ondoko adierazpena:

Defenda dezagun Natura, geldiaraz dezagun aldaketa klima-aldaketa. Sorkuntza fosil eta nuklearreko teknologiek, zeinak energia-enpresa handien eskuetan baitaude, aldeko araudien babesarekin, kalte egiten diote ingurumenari, murriztu egiten dute enpresen lehiakortasuna eta energia-rako sarbide bidezkoa izatea eragozten dute. Energia berriztagarriak behin betiko konponbide bat dira dagoeneko, garapen ekonomiko jasangarri eta arduratsua ahalbidetzen duena. Oztupoak ez dira jada teknologikoak, ezpada enpresaren, politikaren eta araugintzaren arloetakoak.

Horrenbestez:

1. Energia-eredu berri bat nahi dugu, oinarrituko dena energia berriztagarrietan, aurrezpenean eta efizientzia energetikoan, oinarrituko dena erregai fosilak albo batera uzteko plan programatu batean.

2. Herri honen energia-politika egiazko estatu-politika bat izatera pasatzea nahi dugu, adostua gizarte zibilarekin, sektorearekin eta lurraldeekin.

3. Sistema elektriko eskuragarri bat nahi dugu, lehiakortasuna eta ongizatea ekarriko dituen, eta ez dugu nahi gutxi batzuentzako milioi askoko etekinak sortzen dituen sistema bat, ordainetan emisio toxikoak eraginen dituen, katastrofe nuklearrak eragiteko arriskuarekin, eredu horrek

luxuzkoa bihurtu baitu berez oinarritzko baliabide bat dena.

4. Energia ekoizti ahal izatea demokratizadain exijitzen dugu, eta autokontsumoa eskubide bat dela onar dadin.

5. Sistemaren kostuen auditoria bat nahi dugu, sorkuntza-teknologia bakoitzaren egiazko produktio-kostua zein den jakin dadin.

6. Herri honetan egindako inbertsioen konfiantza eta segurtasun juridikoa hondatzen ari diren arau guztiak berehala alda daitezzen nahi dugu.

7. Energia berriztagarrien ekoizleei beren instalazioak jartzeko modua eman zieten legeek aitortutako eskubideak itzul dakizkien nahi dugu.

8. Justizia eskatzen dugu 62.000 familia fotovoltaikoentzat –Nafarroako Foru Komunitatean, 5.668–, zeinak, Estatuak bultzatuta, beren aurrezkiak baliatu baitzituzten eta beren etxeak hipotekatu baitzituzten energia garbiak garatzeko eta sortzeko. Haiek ahalbidetu dute energia-eredu berria.

9. Energia berriztagarrien garapena mozteko inposatutako lege-arau atzeraeraginezkoa berehala indargabetzea nahi dugu.

10. Pairatzen dugun diktadura energetikoa amai dadin nahi dugu, energia demokratizadain exijitzen dugu, eta 2050erako energia berriztagarrietan ehuneko ehun oinarritutako energia-eredu bat dugu helburu”.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren arabera Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa aldatze aldera Alderdi Popularrak egindako proposamena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du, demokraziaren eta politikaren ikuspuntutik onartezina dela iritzita, Konstituzio Auzitegiaren

Lege Organikoa aldatze aldera Alderdi Popularrak egindako proposamena, Madrilgo Diputatuen Kongresuak arrapaladan izapidetua”

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu erakunde publikoek urgentziaz esku hartu behar dutela errefuxiatuak Europara heltzeak eragindako krisi humanitariotik heldu diren ondorio larriei erantzuteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du erakunde publikoek urgentziaz esku hartu behar dutela errefuxiatuak Europara heltzeak eragindako krisi humanitariotik heldu diren ondorio larriei erantzuteko.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gure erkidegoa ezin dela ezer egin gabe gelditu krisi humanitario larri honi begira, eta ekintza zehatzen bidezko konpromisoa hartu behar duela, elkartasun-espíritu argiarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio Nafarroako Gobernuari, errefuxiatuei gure erkidegoan harrera humanitaria emateko plan bat taxutzeko, gainontzeko erakunde eskudunekin, talde politikoekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin adostua.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak errefuxiatuei harrera humanitaria emateko plan bat taxutzearen alde dagoela, urgentziaz eta gainontzeko, talde politikoekin, autonomia erkidegoetako gobernuekin eta Espainiako Probintzien eta Udallerrien Federazioarekin adostua.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak asilo-eskatzailen kopurua

zuzentzearen eta Europako Batzordeak hasiera batean proposatutako gehieneko eskatzailekopurua onartzearen alde dagoela.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio berehala handitu dezan asiloari eta errefuxiatuen harrerari bideratutako aurrekontua.

7. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen erregelamendua onestearen alde dagoela.

8. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio errefuxiatu-izaera onar dezan edo nazioarteko babesa berma dezan, “bero-beroan egindako itzulketak” izenekorik egi-tea eragozteko.

9. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak Afrika iparraldeko herrialdeekiko elkarrizketa eta lankidetza sendotzearen alde dagoela, bai eta gatazka duten herrialdeekiko eta errefuxiatu gehien hartzen duten herrialdeekiko lankidetza ere, ACNURen eta EBren laguntzaren osagarri”

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie pobrezia eta gerren ondorioz Europan babestu behar duten pertsoneri.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die pobrezia eta gerren ondorioz Europan babestu behar duten pertsoneri.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Europako herrialdeek eta erakundeek beharrezkoak diren tresna guztiak abian jartzea errespetuz eta duintasunez hartzeko Europan bizi-aukera baten bila heltzen diren milaka pertsona horiek.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela herritarrek, gizarte-mugimenduak eta

erakunde publikoak mobiliza daitezten errefuxiatuei dagozkien eskubideen alde eta, hartara, babes-hirien sare bat antolatzen parte har dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak bakearekiko konpromisoa eta gerrekiko arbuia adierazten ditu, eta, halatan, beharrezkotzat jotzen du Espainiako estatuak, Europar Batasunak eta nazioarteko erkidegoak gerraren aurka aktiboki lan egin eta lagun dezaten.”

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu ordezkari politikoek Foru Komunitateko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Pertsona guztiekiko errespetua da demokraziaren balio nagusietako bat. Aniztasun ideologikoren elkarrekiko tolerantzia funtsezkoa da bizikidetasun demokratikoari begira.

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu ordezkari politikoek gure erkidegoko zenbait ekitalditan pairatutako erasoak, irainak eta laidoak.

Nafarroako Parlamentuak orobat errefusatzeko dituzten zenbait hedabidek Nafarroako indar politiko demokratikoen aurka –hautestontzietan herritarren babes handia lortu dutenen aurka– zabalduko gezurrak.

Nafarroako Parlamentuak lan egingen du ez dadin halakorik berriro ere gerta.”

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak ETaren biktimen gainean eginiko adierazpenei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak ETaren biktimen gainean eginiko adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure egiten al dituzu Foru Gobernuko eledun eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak egindako adierazpenak, zeinetan parekatu egiten baititu ETaren biktimak eta beste edozein indarkeria-motarenak?

Iruñean, 2015eko abuztuaren 24an

Eleduna: Ana Beltrán Villalba andrea

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aukeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofía Ospitaleak hilabete bat baino gehiago darama zuzendaririk gabe. Zer dela-eta dago zuzendaririk gabe? Ospitale horretako profesionalen lana kaltetua suertatzen ari al da?

Egoerak ba al du eraginik gaixoengan? Noiz izendatuko duzue zuzendaria?

Iruñean, 2015eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuaren aurreikuspenei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile eta funtzionarioen aparteko ordainsaria berreskuratzea eta 2016rako soldata-igoera direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Espaniako Gobernuak iragarri du bere funtzionarioek aparteko soldata berreskuratuko dutela eta ehuneko 1eko soldata-igoera izanen dutela 2016rako aurrekontuan.

Nafarroako Gobernuak 2016rako aurreikusita al dauka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko langileek eta funtzionarioek aparteko soldata berreskuratzea eta haiei soldata igotzea?

Iruñean, 2015eko uztailearen 31n

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa, uholdeek eragindako kalteak txikiagotzeko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa, uholdeek eragindako kalteak txikiagotzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Kasu batzuetan, lurra jadanik ase zegoenez gero, euririk gehiena azaleko isurketa bidez hustu da; beste batzuetan, ibai-ibilguetatik zihoan ur-bolumena handitzearen ondorioz, kalte handiak gertatu ziren ibilguen babesetan eta horien inguruko eremuetan; esate baterako, babes- eta ureztatze-azpiegituretan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obra, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren arabera, kaltetutako babes-azpiegiturek (nagusiki, lubetak eta harri-lubetak) leheneratzen eta oztupoak garbitzen eta kentzen egin da lan batik bat.

Kaltetuen gertatutako udalek eta ureztatze-sindikatuak –ureztatzaile-elkartek– ere, foru

nahiz estatu administrazioen iradokizunei jarraikiz, uholdeak berriz gertatzeko arriskua dela-eta balizko kalteak arintzeko jarduketak egin zituzten, erabakitasun, eraginkortasun eta efizentziaz.

Ureztatze-sindikatuaren kasuan, landatutako eta ereindako sailak ureztatzeko berriz erabili beharreko ureztatze-azpiegiturek egokitzeko.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 273 eta 274–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, ureztatze-azpiegituretan nahiz nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategietan eragindako kalteak presaz eta gerora gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Ez da lehenengo aldia gisa horretako gertakariak errepikatzen direna. Hori dela-eta, udalak eta nekazariak eskatzen ari dira neurriak har daitezen uholde horien ondorioak arindu ahal izateko. Esako edo ltoizko urtegiak eraiki izanari esker, emariak erregulatu ahal izan dira, eta bidenabar beste ur-aprobatxamendu mota batzuk ere egin ahal izan dira; adibidez, eremu ureztagarriak eta giza nahiz industri hornidura ziurtatu.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren beraren txostenetan jasota ageri denez, zenbait ibai-ohetako gune zehatz batzuk –esaterako, Ebro ibaiarena– goratu egin dira, eta premiazkoa da horietan esku hartzea. Beharrezkoa da, halaber, ibilguak garbitzea. Horren adibide garbia dira Arga, Aragoi, Ega eta Alhama ibaien ibilguak, non badiren gune jakin batzuk nahasi egin daitezkeenak zabortegei edo baso batekin (uholde-hondarrak, enbor gurutatuak eta arbolak, legar-pilaketak, eta abar).

Jarduketa premiazkoenak egin eta gero, logikoa da neurriak garaiz aztertzea, eztabaidatzea eta ezartzea uholde horien ondorioz larrienak arintzeko, ez gaitzen hurrengo hilabeteetan egoera bera suerta.

Hori dela-eta, ondoko galderak egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Gobernuak zer irizpide dauka uholde horiek eragindako kalteak minimizatzei buruz?

2.- Zer jarduketa-mota egiteko asmoa dauka?

3.- Ba al du asmorik Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exijitzeko, alkateek eta nekazariak eskatzen duten moduan, Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaiak garbitu ditzan,

material gehiegi pilatu den guneetan, ala modu subsidiarioan eginen du garbiketa hori?

4.- Ebro ibaiaren kasuan, uholde-eremuak ezartzearen aldekoa al da Gobernuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak nahi duen bezala?

5.- Aurreikusita al dauka bilerarik egitea administrazio eskudunekin eta udalen, ureztatzaile-elkarteen eta nekazarien ordezkariekin, egoerari aurre egiteko, elkarrekin nahiz bere kabuz?

Corellan, 2015eko abuztuaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen egin gabeko faseen exekuzio-epeak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Itoizko urtegia-Nafarroako Ubidea bikotea Nafarroaren aurrerabidean eta lurralde-egituraketan laguntzen ari den azpiegitura hidriko bat da.

Bi azpiegitura horien onurak denboran zehar luzatuko dira, zenbait nafar-belaunaldiren mesedetan, zeinek asebeteta ikusiko baitituzte beren ur-kontsumoko beharrianak, bai kantitateari bai kalitateari dagokienez. Nafarroako biztanleriaren ehuneko 70i ziurtatuko zaizkio giza- eta industria-hornidura, eta milaka hektarea ureztatu ahal dira. Proiektua errealitate bat da. Milaka nafarrek

dute jadanik ziurtatuta hornidura, eta milaka hektarea bihurtu dira jadanik ureztaluz.

Horretarako eratu ziren ureztatzaileen eta toki entitateen partzuegoak: giza eta industria-kontsumorako urez hornitzeko Nafarroako Ubideak. Ubidea, hasiera batean, 87 herritara heltzea aurreikusi zen, eta horietako askotan abian da; esate baterako, urtegitik gertukoetan eta Iruñerriko Mankomunitatekoetan.

Lehendabiziko fasea jada bukatuta, Ega eta Arga ibaien arteko 15.000 hektarea gehiago ureztatu ahal izanen dira ubidea Estellerrirantz handitzeari esker. Hori guztia, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1998ko urriaren 19an sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker eta gaur arte egindako hiru gaurkotzei esker.

Nafarroaren hegoaldeak ere behar du azpiegitura hori, giza eta industria-kontsumoa ziurtatuko bada eta milaka hektarea lehor-lur ureztaluz bilakatuko badira; izan ere, landa-ingurunean finkatzeko bermea emanen luke horrek, eta, batez ere, egungo nahiz etorkizuneko ur-beharrianak asebetetzeko bermea, behar bezalako kantitatean eta kalitatearekin. Hori guztia Nafarroako Ubidearen bigarren fasearekin lortuko da; batik bat, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterrari dagokionez.

Onura horiez gain, energia garbia sortzen duten emari ekologikoak eta aprobeixamendu energetikoak ere ziurtatuko dira.

Langabeziak ukitutako eremuetan eta egungoak bezalako une zailetan enplegua sortzeko, eta azpiegitura horrek industriaren sektorean eta lehen sektorean sortzen duen jardura ekonomikoa aintzat hartuta, eutsi egin behar zaie azpiegitura horri buruzko aurreikuspenei.

Horregatik guztiagatik, honako hau galdetzen diot Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak bete egingen al ditu Nafarroako Ubidean egiteke dauden faseen eraikitze-epeak?

Corellan, 2015eko abuztuaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, itxarote-zerrendei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, itxarote-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ba al duzu itxarote-zerrendak murrizteko aurrekontua handitzeko asmorik, edo ba al duzu itxarote-zerrendak kostu ekonomikorik gabe murrizteko planik?

Iruñean, 2015eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eta COSPLANen (Familia Orientabiderako Zentroa) arteko harremanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Zertan datza nafar gobernuak Cosplan elkartearekiko daukan kolaborazio harremana? Ekonomikoa den, baliabide materialak diren...

Iruñean, 2015eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazcano

Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldearen erabakiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako ikasleak fisikoki banandu baitituzte hizkuntza-ereduaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentarien elkarteari atxikitako Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernua bat al dator Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritzak hartutako erabakiarekin, zeinaren indarrez fisikoki bereiziko baitira hizkuntza-ereduaren arabera Haur Hezkuntzako ikasleak?

Hezkuntza Departamentuak ba al daki banaketa fisiko hori eskola-jarduera komunetara ere iritsiko ote den, esate baterako atsedendietara?

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dauka hizkuntza-eredu ezberdinetako ikasleek eskola-jarduerak garatzean hezkuntza-esperientziak eta espazio komunak konpartitzeari dagokionez?

Iruñean, 2015eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurtengo abuztuaren 20an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Adieraztea idazki horren berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
